

LAPURTUTAKO APARTEKO PAGAREKIN ZER?

Lehenik eta behin, gogorarazi behar dugu 2012ko Gabonetako aparteko paga lapurtu zigutela Madrilgo dekretu baten bidez. Handik aurrera, aparteko ordainsarien aurrerapenak aritu gara jasotzen gaur egun arte.

Eta orain zer?

- 2012ko pagaren %25 aurrekontuen legean jasota dago eta EHAAn argitaratu da (martxoaren 12ko boletinean) Apirileko nominan ordainduko dute.
- 44 eguneko prorratoari dagokiona jasoko da: uztailaren 1etik abenduaren 31 arte. Ofizioz ordainduko da.
- Hezkuntza Sailak esan duenez, irakasle interinoek eta bakantedun hezitzaileek ez dute kobratuko, 2012ko uztaila eta abuztua kobratu baitzuten finikito moduan; jubilatuek garai horretan lanean baziharduten, ofizioz kobratuko dute.

Kasu bereziak: Lan harremana amaituta badago (jubilatuen kasuan izan ezik) edota langilea hil egin bada, oinordekoek eskaera egin behar dute apirilaren 1 baino lehen.

Adabakirik ez! Zor diguten guztia itzul diezagutela!!



MURRIZKETARIK EZ